

PRESIDENTETZA MINISTERIOA

17498 Osasun Zientzien espezialisten prestakuntzarako egoiliartzaren lan-harreman berezia arautzen duen urriaren 6eko 1146/2006eko ERREGE DEKRETUA.

Egoiliartza sistemaren bidezko espezialisten prestakuntza gure osasun sistema publikoaren aurrerapenerako eta sendotzerako oso garrantzitsua bada ere, egoiliarren lan-harremanak ez du Espainian berariazko arautegirik izan 1969ko irailaren 3ko eta 1971ko uztailaren 28ko ministroaren aginduek barneko mediku eta mediku egoiliarren irudia sortu zutenetik. Hauek lan izaera zuen kontratuzko lotura bat sortu zuten Gizarte Segurantzako osasun erakundeekin.

Osasun lanbideen antolamenduari buruzkoa den azaroaren 21eko 44/2003 Legeak, egoiliarren eta irakaskuntza entitate titularren arteko harremanen arautzea, lanaren arloari dagokionez, funtsean banakako lan-kontratuan oinarritzen dela adierazten du eta, honen 20.3.f) artikuluan nahiz lehenengo xedapen gehigarrian, Gobernari langile hauen lan-harreman bereziak arautzeko errege dekretu bat onartzeko agintzen dio, honela lehenengo aldiz eremu orokor eta homogeen bat sortuz langile guztientzat, beraien prestakuntzaz arduratzen den zentroa kontutan hartu gabe. Honekin, Estatu guztian antzeko baldintzetan egiten den prestakuntza programen burutze eta betetzea egoiliar guztientzat berdinarak diren eskubide eta betebeharrak erregimen logiko batekin bat egiten dutela ziurtatzen da. Era berean, europar erkidegoko eremu arauemailea ere kontutan hartu da, bereziki Kontseiluko 1993ko apirilaren 5eko 93/16/CEE Zuzentaraua, honen helburua medikuen zirkulazio librea erraztea eta diploma, ziurtagiri eta bestelako tituluak elkarren artean aintzat hartzea delarik, eta europar Parlamentu eta Kontseiluko 2003ko azaroaren 4ko 2003/88/CE Zuzentaraua, lan-denboraren antolaketa alde zehatz batzuei buruzkoa.

Honetarako, Osasun eta Kontsumo Ministerioak osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeko 11.4 artikuluan ezartzen diren xedapenei jarraituz, negozio-eremu bat eratu zen, Elkarrizketa Sozialerako Esparru Foroan bertan zeuden erakunde sindikalen parte-hartzearekin. Honen helburua, errege dekretu honen gai den egoiliartzaren lan-harreman bereziari buruzko alderdiak aztertzea izan zen, eta, bertako parte-hartze zabalari esker, osasun esparruaren erakunde sindikal hauek egindako proposamen anitz txertatu ahal izan zaizkio arautegiari.

Honekin batera, errege dekretu hau egiterakoan, autonomia erkidegoetako administrazio sanitarioek anitz parte hartu dute, eta alderdi honetan azpimarratzekoa da 2005ko azaroaren 21eko Giza Baliabideen Batzordearen Batzarrean hartutako ahobatezko erabakia, ordainsariei buruzko arautegi komun bat onestuz. Ostera, osasun zerbitzu eta bestelako entitate titularrek, beraien eskuduntzen barne eta izaera berezia duten lan-harremanak arautzen dituen erakundeekin ados egonik, beraien osasun-politikarentzat egokiagoak diren berariazko desberdintasunak ezarri ditzakete. Halaber, egoiliartza bidez prestatzen diren profesionalen elkargo-erakundeek ere hartu dute parte.

Hemengo errege dekretu hau hiru atalburuz, zazpi xedapen gehigarri, lau iragankorrez, indargabetzaile bakar batez eta bi azken xedapenez osaturik dago.

I. atalburuak bere helburua, aplikazio-esparrua eta iturrien sistema xedatzen du.

II. atalburuak, kontratuari buruzkoa, beste gaien artean, honen iraupena eta aldean eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu. Hauen artean azpimarratzekoak dira lanaldiari, ordainsari sistemari eta kontratuaren etendura eta iraungipenari buruzko xedapenak.

III. atalburuak, azkenik, diziiplina-erregimenari buruzko aurreikuspenak ezartzen ditu.

Xedapen gehigarriek, minusbaliotasuna duten langileei buruzko alderdiak modu berri batean arautzen ditu, eta baita genero-indarkeriaren kontrako osoko babeserantzako baldintza bereziak ere.

Era berean, lan-harreman honen helburua prestakuntza-programa bat gainditzearen bidez espezialista titulua lortzea dela gogoan hartuta, lan-denboraren antolaketa berezi bat ere aurreikusten da, kasu batzuetan egoiliar langileak familia-bizitza lan-bizitzarekin bateratu ahal izango duelarik lanaldi murriztea edo kontratu etendura egin beharrik gabe, egoera hauek urte batean prestakuntza ikastaro guztia egitea ezinezkoa bilakatuko bailukete.

Azkenik, espezialitate mediko jakin batzuentzat berariazko arauak ezartzen dira eta urteko eta amaierako ebaluazioen berrikusteen prozedura arautzen da.

Xedapen iragankorretan lanaldiaren erregimenaren eta ordainsari sistema berriaren mailakako aplikazioa aurreikusten da, erizaintzaren espezialitateetarako berariazko arauak ezartzen dira eta dagoeneko dauden baldintza onuragarrien mantentzea jasotzen da.

Errege dekretu hau egiterakoan erakunde sindikal eta enpresariaren elkarte esanguratsuenak kontsultatu dira, hala nola, Espezialitate Medikoen Kontseilu Nazionala, Erizaintzako Espezialitateen Batzorde Aholkularia eta Espezialitate Farmazeutikoen Kontseilu Nazionala.

Errege dekretu hau azaroaren 21eko 44/2003 Legeko lehenengo.2 xedapen gehigarriarekin bat datorrelarik ematen da, hau martxoaren 24eko 1/1995 Errege Dekretu legegileak onartutako Langileen Estatutuko Testu Berrituko, 2.1.i) artikuluekin lotuta dagoelarik.

Honi jarraiki, Lan eta Gizarte Arazoen Ministroak eta Osasun eta Kontsumo Ministroak egindako proposamenaren arabera, Estatuko Kontseiluarekin ados egonik eta Ministroen Kontseiluan aurretik eztabaidatu izanik 2006ko urriaren 6ko batzarrean,

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

Xedapen orokorrak

1. Artikulua. *Helburua, aplikazio-esparrua eta iturriak.*

1. Errege dekretu honen helburua Osasun Zientzien espezialisten prestakuntzarako egoiliartzaren lan-harreman berezia arautzea da, Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzkoa den azaroaren 21eko 44/2003 legeko 20.3.f) artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarri aurreikusitakoaren arabera.

2. Urtean behin egiten diren hautapropa nazionalak gainditu dituen unibertsitate tituludunei aplikatuko zaie. Hauek zentro edo irakaskuntza unitate batean plaza bat lortu izango dute egoiliartza sistemaren bidez Osasun Zientzien prestakuntza programa espezializatu bat garatu ahal izateko, azaroaren 21eko 44/2003 Legeko 20. artikuluan aurreikusia dagoen bezala, eta espezialista titulu bat lortu ahal izateko helburuarekin, beraien zerbitzuengatik legalki ezarrita dauden ordainsariak jasoz.

Baita ere, Osasun Zientzietan espezialistak direnei aplikatuko zaie, aipatutako legearen 23. artikulua arabera, espezialitate berri bat ikasi nahi badute, eta 25. artikulua arabera, egoiliar sistemaren bidez Berriazko Gaikuntzaren Esparruko Diploma lortzeko prestakuntza egin nahi dutenei.

3. Estatuko lurralde guztian aplikatuko da, Osasun Zientzien espezialisten prestakuntzarako akreditaturik dauden zentro edo irakaskuntza unitateetan kokaturik dauden osasun establezimenduen titulartasuna publikoa edo pribatua bada ere.

4. Egoiliartzaren lan-harreman bereziari buruzko eskubide eta betebeharrak errege dekretu honen bitartez arautuko dira eta, baita ere, martxoaren 24eko 1/1995 Errege Dekretu legegileak onartutako Langileen Estatutuko Testu Berrituaren, hitzarmen kolektiboen, eta lan kontratuetan azaldutako alde bakoitzaren borondatearen bitartez. Ezin izango dira inolaz ere aurreikuspen legeletan eta lehen aipatutako hitzarmen kolektiboetan azaltzen diren baldintzak baino onura gutxiagoko edo hauen kontrako baldintzak ezarri.

II. ATALBURUA

Kontratuari buruz

2. Artikulua. *Kontratuaren forma, edukia eta eraginkortasuna.*

1. Lan-kontratuak idatziz burutuko da egoiliarraren eta prestakuntza emateko akreditatuako entitate titularraren irakaskuntza unitatearen artean, lehenengoa langile izaerarekin eta bigarrena enplegu-emaile edo enpresari izaerarekin.

2. Kontratuak lau kopia eginez formalizatuko da, eta honek, gutxienez, ondorengo datuak edukiko ditu:

- a) Alde bakoitzaren nortasuna.
- b) Enpresaren helbide soziala.
- c) Prestakuntza programa garatuko den irakaskuntza unitatea eta dagokion zentroa edo, kasua bada, hau osatzen dituzten dispositiboak. Honen akreditazioan zentro bat baino gehiagotan txandatzea aurreikusten bada, egoera hau baita ere adieraziko da.
- d) Egoiliarrak plaza lortu duen hautapropa.
- e) Lan harremanaren hasiera data eta iraupena.
- f) Egoiliarraren unibertsitate titulua eta egingo duen prestakuntza programa.
- g) Ordainsarien zenbatekoa.
- h) Lanaldia.
- i) Oporren iraupena eta hauek emateko eta zehazteko modua.
- j) Kasua bada, aplikatu daitezkeen hitzarmen kolektiboak.

3. Espezialitateko prestakuntza programaren iraupenaren arabera, kontratuari dagozkion berritzeen izapideak gehituko zaizkio.

4. Kontratuak formalizatu aurretik, egoiliar bakoitzari osasun-azterketa bat egingo zaio, prestakuntza programak eskatzen dituen jarduera profesionalak egitea galaraziko dion gaixotasunik edo mugatze fisiko edo psikikorik ez duela baieztatzeko. Kontratuak ez du baliorik izango, egoiliarrak plaza lortutako hautaprobetako prozedura konplitu eta, aipatutako osasun-azterketa ez bada gainditzen.

3. Artikulua. *Kontratuaren iraupena*

1. Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da eta hau epe berdinetan berriztagarria izango da prestakuntza programa irauten duen bitartean, baldin eta espezialitateari

dagokion ebaluazio Batzordeak egoiliarra positiboki ebaluatu badu.

2. 11.2. artikuluan aurreikusitako kasuetan, kontratu berriaren iraupena urte bat baino gutxiagokoa izan daiteke, hau da, etendako ikastaroa bukatzeko beharrezkoa den denboraren iraupeneko.

3. Egoiliarrak ebaluazio negatiboa lortzen badu finkatutako helburuetara ez iristeagatik baina Batzordeak berriazko errekonferentzia programatu baten bidez hauek iritsi ahal izango dela kontsideratzen badu, kontratua plan horren iraupenera luzatuko da, hau hurrengo ikasturteko lehenengo hiru hilabeteetan burutu behar izango delarik, epe honetako berezko jarduerekin batera. Honela, ondorengo bederatzita hilabeteen luzapena errekonferentziaren ebaluazioaz baldintzaririk gertatuko da.

Errekonferentzia luzapen hau baimendua izan daiteke baita ere, egoiliartzaren azken urtea amaitu ondoren, ebaluazio Batzordeak aipatutako planarekin errekonferentzia gauzatu ahal daitekeela kontsideratzen badu.

4. Ebaluazio negatiboa urteko lanaldiaren ehuneko 25a baino gehiagotan zerbitzuak ezin emateagatik, kontratua eteteagatik edo beste legezko arrazoiengatik gertatu bada, kontratuaren luzapena baimenduko da prestakuntza amaitzeko behar den denboraz edo beronen errekonferentzia osoa gauzatu, dagokion irakaskuntza Batzordearen txostena aurretik aurkeztuz. Errekonferentzia proposamena Osasun eta Kontsumo Ministerioak erabakiko du.

5. Egoiliartzaren lan-harreman berezi honetan ezin ahalgo da proba epe bat ezarri.

4. Artikulua *Eskubide eta betebeharrak*

Langileen Estatutuko eskubide eta betebeharrak orokorrean gain, egoiliarrek ondorengo berriazko eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

1. Eskubideak:

a) Titulua lortzeko xedea duen espezialitatearen prestakuntza programa eta, baldin badaude, banakako moldaketak ezagutzea.

b) Prestakuntza programaren jardueren garapenean zehar lagunduko dion tutore bat izendatzea.

c) Programatua, zuzendua eta ebaluatua dagoen praktika profesional baten bidez, prestakuntza teoriko-praktiko bat jasotzea, honekin espezialitate bere kabuz gauzatu ahal izateko ezagutza eta erantzukizunak era progresibo batean lortu ahal izango dituelarik, laguntza-jardueretan eta jarduera orokor eta larrietan integratuz.

d) Bere unitate, zentro edo erakundearen funtzio, betebeharrak, programazio funtzional eta helburuei buruz jakinaren gainean egotea, bai eta hauek betetzeko dauden ebaluazio sistemiei buruz ere.

e) Bere lanbideari jardutea eta bere espezialitateari dagozkion jarduerak garatzea, bere erantzukizuna mailaka gehituz, prestakuntza programa aurreratzen den heinean.

f) Egoiliarrak zerbitzua ematen duen unitatean lan egiten duten profesionalak ezagutzea eta hauei aholkuak edo laguntza eskatzea behar duenean, honek laguntza ukapena edo beraien lanpostuaren utzikeria suposatzen ezin duen.

g) Akreditatutako unitateak esku hartzen dituen irakaskuntza, ikerlan, laguntza eta kudeaketa klinikoko jardueretan parte hartzea.

h) Bere jardueren erregistroa egoiliarraren liburuan.

i) Ebaluazio jarraia, urtekoa eta amaierakoa ahalik eta modu objektiboenean egitea.

j) Prestakuntzaren luzapena izatea, aurreko artikuluko 3. eta 4. atalean azaltzen den epean eta bertako baldintzekin.

k) Urteko eta amaierako ebaluazioen berrikustea, errege dekretu honetan arautzen den prozedura jarraituz.

l) Espezialitateko Batzorde Nazionalen eta zentroetako irakaskuntza batzordeetan ordezkaturia izatea, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen zehaztapenen arabera.

m) Zentroaren funtzionamendua eta antolaketa irakaskuntza jardueretara nola moldatzen den ebaluatzea, informazio honen konfidentzialtasuna gordetzeko bermearekin.

n) Bere lanbidearen jardueretan edo bere betebeharrak egiten dituen bitartean, irakaskuntza entitatearengandik babesa edo osasun zerbitzuak jasotzea.

ñ) Egoiliarrek zerbitzuak ematen dituen entitateko beste langileek dituzten laneko osasun-babes berdina edukitzea.

o) Bere plaza ez kentzea, errege dekretu honetan azaltzen diren iraingipen arrazoiengatik edo legalki aurreikusitako beste arrazoiengatik ez bada.

2. Betebeharrak:

a) Prestakuntza programa guztia lanaldi osoan egitea, beste edozein jarduerekin bateratu gabe, 44/2003 Legearen 20.3.a) artikuluan azaltzen diren baldintzen arabera.

b) Bere tutoreen, osasun-langileen eta zuzendaritza eta irakaskuntzakoak diren pertsona bakarrek eta elkargoko organoen argibideak jarraituz prestatzea, hauek, modu koordinatuan zentroaren funtzionamendu onaren eta dagokion prestakuntza programaren garapenaren arduradun izango direlarik.

c) Irakaskuntza unitatea osatzen duten funtzionamendu araudiak ezagutzea eta betetzea, batez ere pazienteen eskubideei dagokienez.

d) Zerbitzuak pertsonalki ematea eta dagokion prestakuntza programak eta zentroaren antolaketa funtzionalak eskatzen dituzten laguntza zereginak egitea, espezialitatearekin lotutako gaitasun profesionala lortu ahal izateko eta baita osasun erakunde beraren helburuak lortzera laguntzeko.

e) Baliabideak zentzuz erabiltzea pazientearen alde eta haien legez kontrako edo bitarteko pertsonen erabilera eragozteko.

5. artikulua *Lanaldia eta atsedendialdiak*

1. Egoiliar langileen lanaldia eta atsedendialdi erregimena dagokion osasun zerbitzuen esparruan ezarritakoak izango dira, ondorengo berezitasunekin:

a) Ohiko lanaldia hitzarmen kolektiboz erabakiko da. Horrelakorik ez badago, egoiliarra prestatzen ari den espezialitateko osasun zerbitzu bakoitzeko estatutupeko langileentzat, arau, itun eta hitzarmenen bidez dagoeneko ezarrita dagoena izango da.

Nolanahi ere, ohiko lanaldiaren iraupenak ezin izango du asteroko 37,5 ordu baino gehiago izan, sei hileko bataz-bestekoa kalkulaturik, hitzarmen edo itun bidez beste kalkulu bat erabakitzen ez bada.

b) Lanaldi baten amaiera eta hurrengoaren hasieraren artean, gutxienez, 12 orduko atsedendialdi jarraia egon beharko du.

Nolanahi ere, etengabeko 24 orduko lanaldiaren ondoren, hau bai bereziki ezarritako ohiko lanaldia, bai lanaldi

osagarria edo bai bien arteko denbora bateratua izan, egoiliarrek 12 orduko atsedendialdi jarraia izango du, bere tutorearen ustez prestakuntzarako interes berezia duten kasuetan edo antolaketa arazo gaindiezinengatik izan ezik. Kasu hauean, txandakako atsedeen erregimena aplikatuko da, Osasun Zerbitzuen estatutupeko langileen Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak dioenaren arabera.

c) Egoiliarra, dagokion ikastaroarentzako prestakuntza programak ezartzen dituen orduak bakarrik egitera dago behartuta. Nolanahi ere, ezin izango ditu hilean zazpi guardia baino gehiago egin.

2. Lanaldiak prestakuntza programen betetzea ziurtatuko du.

Zentro bakoitzaren antolaketa baliabide eta baliabide funtzionalen barne, egoiliarren lan-denboraren antolaketa bere prestakuntzari kalte egin ez diezaion moduan ezarriko da.

3. Ezin izango da lanaldi partzialeko kontratua gauzatu langile egoiliarrentzat.

6. artikulua *Jaiegunak, baimenak eta oporrak*

1. Egoiliar langileek jaiegun, baimen eta oporrak eduki ahal izango dituzte Langileen Estatutuko 37. artikuluko 2, 3, 4, 4 bis, 5, 6 eta 7 eta 38 ataletan arautzen denaren arabera.

2. Osasun Sistema Nazionalaren menpean dauden irakaskuntza titularren entitateetan zerbitzuak ematen dituzten egoiliarrek, baita ere, osasun zerbitzu bakoitzeko estatutupeko langileek dituzten aukera libreko jaiegun berdinak izango dituzte.

3. Egoiliarren urteko oporraldi ordainduak eta jaiegunak irakaskuntza programen betetzearen eta laguntza beharren arabera erabakiko dira, zentroaren programazio funtzionalarekin bat eginez.

7. artikulua *Ordainsariak*

1. Osasun Sistema Nazionalaren menpean dauden irakaskuntza titularren entitateetan zerbitzuak ematen dituzten egoiliarren ordainsariak, dagozkien aurrekontu legeek diotenaren arabera, ondorengo kontzeptu hauek hartuko ditu barne:

a) Soldata, osasun zerbitzuetako estatutupeko langileei beraien lanbidea egiteko eskatzen zaien unibertsitate titularen araberekin zenbatekoaren baliokidea izango da oinarritzko soldata, eta egoiliarren kasuan, dagokion prestakuntza programan sartu ahal izateko eskatzen zaien titularen arabera.

b) Prestakuntza mailari dagokion gehigarria; hau prestakuntza ikastaroaren bigarren mailatik aurrera jasoko da.

Honek, laguntza zereginetako jakintza maila eta erantzukizunen mailakako eskuratzea saritzeko helburua izango du.

Bere zenbatekoa soldataren portzentaia bat izango da. Portzentaia ondorengoak izango dira:

1. Bigarren mailako egoiliarrek: ehuneko zortzia.

2. Hirugarren mailako egoiliarrek: ehuneko 18a.

3. Laugarren mailako egoiliarrek: ehuneko 28a.

4. Bosgarren mailako egoiliarrek: ehuneko 38a.

c) Etengabeko arretako gehigarria; osasun zerbitzuen erabiltzaileei emandako arreta iraunkor eta jarraia saritzeko helburuarekin.

d) Egoiliar-plus bat jasoko da, hori ezarrita daukaten lurraldeetan.

2. Egoiliarrek bi aparteko ordainsari jasoko dituzte, bakoitza sei hilabetetan behin, ekainean eta abenduan, hilabete horiei dagokien soldatarekin batera. Plus hauen zenbatekoa, gutxienez hilabete bateko soldataren eta prestakuntza mailari dagokion gehiariaren berdina izango da.

3. Hemen azaldutako ordainsariak, lan-denbora errealarri dagozkie, eta honetarako ez dira kalkulatzeko lanaldien arteko atsedendialdiak.

4. Prestakuntza emateko akreditaturik dauden eta irakaskuntza unitateen titularrak diren entitate pribatuak kontratatzen dituzten egoiliarrek, beraien ordainsaria, dagokion hitzarmen kolektiboan erabakitakoaren arabera jasoko dute. Ohiko lanaldiari dagokion ordainsaria ez da inoiz artikuluko honen 1., a) eta b) eta 2. atalean ezartzen dena baino gutxiago izango.

8. artikulua *Txandaketa*

1. Kanpo txandaketak kontsideratuko dira prestakuntza programan edo zentroari edo irakaskuntza unitateari emandako akreditazioan aurreikusita ez dauden zentroetan gertatzen diren prestakuntza denboraldiak. Egoiliarrek kanpo txandaketak egin ditzakete, ondorengo baldintzak betetzen badira:

a) Kanpo-txandaketa agintari eskudunek proposatu eta baimentzea, lortu beharreko helburuak zehaztuz. Hauek zentroan praktikatzeko ez diren tekniken ezagutzarekin edo ikasketen zabalkuntzarekin zerikusia eduki beharko dute eta prestakuntza programaren arabera, beharrezkoak eta osagarriak izango dira.

b) Ahal bada, irakaskuntzarako akreditatuak dauden zentroetan edo nazioko edo nazioarteko zentro entzutetsuetan egitea.

c) Urteko ebaluazioaren barnean, lau hilabete jarrai baino gehiagokoak ez izatea.

d) Jatorrizko zentroaren zuzendaritzak egoiliarrari bere ordainsariak ematen jarraitzeko konpromiso zehatza hartzea, kanpo-txandaketa egiten ari den bitartean egiten duen etengabeko arretako gehigarria barne.

2. Kanpo-txandaketek bidai kostuen eskubidea emango diote egoiliarrari, irakaskuntza unitatearen entitate titularrei aplikatu ahal zaizkion arau eta hitzarmenen arabera.

3. Kanpo-txandaketa bakoitza, prestakuntza egiten ari den espezialistaren liburuan ikus-onesia egon beharko da eta kanpo-txandaketa egin den zentro edo unitateak dagokion ebaluazio txostena igorriko du.

4. Prestakuntza programan edo zentro edo irakaskuntza unitateari emandako akreditazioan aurreikusita dauden zentroetan egiten diren txandaketak barnekoak izango dira eta ez dute eskubide ekonomikorik edukiko.

9. artikulua *Kontratu etetea.*

1. Kontratu Langileen Estatutuko 45.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioz etengo da, aldean arteko adostasun batengatik edo kontratuan ezarritako arrazoiengatik izan ezik.

2. Lan-harreman honek batez ere prestakuntza izaera duenez eta osasun zientzien aurrerapen arinengatik, kontratu etetea bi urte baino gehiagokoa bada, egoiliarra espezialitateko irakaskuntza batzarrak erabakiko duen prestakuntza programaren atalean sartuko da, honek egoiliarrak dagoeneko positiboki ebaluatua zeukan denboraldi bat errepikatu behar duela esan nahi badu ere.

10. artikulua *Eszedentziak*

1. Langileen Estatutuko 46. artikuluan arautzen denaren arabera izango dira, 2. atalean aurreikusten den arazoia baztertuz, hau ezin izango baita inolaz ere onartu.

2. Eszedentzia denbora bi urte baino gehiagokoa balitz, aurreko artikuluko 2. atalean azaldutakoa jarraituko da.

11. artikulua *Kontratuaren iraungipena*

1. Kontratu ondorengo arrazoiengatik iraungi daiteke:

a) Prestakuntzako azken urteko ebaluazioa positiboa izan delako eta horregatik egoiliarrak dagokion espezialitateko programa amaitu duelako, kontratuaren amaierako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan gabe.

b) Urteko ebaluazio negatiboa izateagatik, kontratuaren amaierako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan gabe.

c) Urteko ebaluazio negatiboa izateagatik, egoiliarrak berrikuste bat eskatu duen edo ez kontutan izan gabe, eta kontratuaren amaierako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan gabe.

d) Egoiliarrak bere borondatez uko egiteagatik, bai esplizituki edo modu isilean. Hau honela ulertuko da prestakuntza denboraldiaren errepikapena baimendu eta egoiliarra honen hasierara azaltzen ez bada edo ebaluazio batzordeak erabakitako berariazko errekuperazio planera azaltzen ez bada, bi kasuetan arrazoi justifikaturik gabe.

e) Langileen Estatutuko 49.1.g), h), i) eta j) artikuluan ezarritako arrazoiengatik, edo agintari eskudunak irakaskuntza unitateari espezialisten prestakuntzarako akreditazioa kentzeagatik.

f) Kontratu sei hilabete baino gehiago etenda egoteagatik, hau ezinbesteko arrazoiengatik edo arrazoi ekonomiko, antolaketa tekniko edo produkzioengatik gertatu denean.

g) Diziplinazko kaleratzeagatik, errege dekretu honetako 14.3 artikuluko diogenaren arabera.

h) Langilearen erretiroarengatik.

i) Egoiliarraren heriotzagatik, baliaezintasun handiarengatik edo baliaezintasun iraunkor oso zein erabatekoarengatik, Langileen Estatutuko 48.2 artikuluko dioena nolana ere jarraituz.

j) Langileak hala erabakitzen badu, genero-indarkeriaren biktima izateagatik bere lanpostua modu iraunkorrez uztea beharturik ikusten badu bere burua.

2. Kontratu iraungitzea 1. e) f) eta j) atalean azaltzen diren arrazoiengatik gertatzen bada, Administrazio sanitarioak, hau jasan duten egoiliarrei beraien espezialitate prestakuntza beste irakaskuntza unitateetan jarraitzeko aukera emango die, hemengo entitate titularrekin aurretik egindako eta positiboki ebaluatutako prestakuntza denbora baliozkotzat jotzen dituen kontratu berriak gauzatzuz.

3. Kontratu iraungitzea diziplinazko kaleratzeagatik egiten bada eta hau epai irmoz bidegabetzat jotzen bada, egoiliarrak berriz-hartzearen eta kalte-ordainaren artean hautatu dezake. Berriz-hartzea hautatzen badu, kaleratzeetik epaiaren egikaritzera pasa den denboraren arabera, 9.2 artikuluan kontratu etetearen ondoren lanera itzultzeko azaltzen denaren arabera jokatu da.

4. Kontratuaren iraungipenak hautaprobea nazionalak gainditzeagatik eskuratutako eskubideen iraungipena dakar, eta ondorioz, espezialitate berdineko edo beste bateko prestakuntza programa batera sartu ahal izateko, beste proba bat gainditzea eskatuko da, iraungitzearen kausa egoiliarrari egotzi ezin zaionean izan ezik.

III. ATALBURUA

Diziplina-erregimena

12. artikulua *Erantzukizun diziplinarioa*

Egoiartzaren sistemarekin prestakuntza egiten duten langileek erantzukizun diziplinario bat edukiko dute egiten dituzten hutsegiteengatik.

13. artikulua *Hutsegite motak*

1. Diziplina hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Lan-harreman honen ezaugarri bereziengatik, hutsegiteen tipifikatzea abenduaren 16ko 55/2003 Legeko 72.2, 3, 4, eta 5 artikuluan osasun zerbitzuetako estatutupeko osasun-langileentzat ezarrita dagoena izango da, hitzarmen kolektiboek bestela esaten ez badute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa zentru pribatueta irakaskuntza unitate akreditatuetan plazak dituzten egoiliarrei aplikatuko zaie, hitzarmen kolektiboko araudi bat ez badago.

3. Diziplina arloan ez dira asistentzia hutsegiteak kontsideratuko Langile Estatutuko 52.d) artikuluko bigarren paragrafoan aipatutakoak.

14. artikulua *Zehapenak*

Hitzarmen kolektiboek bestela esaten ez badute, egindako hutsegite diziplinarioei dagozkien zehapenak ondorengoak izango dira:

1. Hutsegite arinengatik: ohartarazpena
2. Hutsegite larriengatik: lan eta soldata etendura.
3. Hutsegite oso larriengatik: kaleratzea.

15. artikulua *Diziplina prozedura*

1. Diziplina zehapenak ezartzeko eskuduntza, irakaskuntza unitatearen osasun erakundearen organo eskudunari dagokio.

2. Zehapena ezarri aurretik, zentroko langileen kudeaketaren arduradunak idatziz adieraziko dio egoiliarri data eta aplikatzen diren arauen haustea kontsideratzen diren ekintzak, eta hauen kalifikazio posiblea, hurrengo hamar egunetan egoiliarra defendatu ahal izan dadin.

Hutsegite larrien edo oso larrien kasuetan, idazki hau irakaskuntza batzordera ere bidaliko da, hurrengo hamar egunetan bere iritzia eman ahal dezan.

3. Argudioak jasotzen direnean edo epea pasa eta hauek igortzen ez badira, organo eskudunak doakionari ondorengoaren berri emango dio: zehapena, data, zehapena ezartzera eraman duten ekintzak eta hauen kalifikazioa, edo, kasua bada, artxibatzea, prozedurak hala amaitu badu.

4. Enpresa batzarrari hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenen berri emango zaio.

16. artikulua *Hutsegiteen preskribatzea*

1. Falta arinak hamar egun ondoren preskribatuko dute, larriek hogeit hamar egun ondoren eta oso larriek hirurogei egun ondoren, zentroko gertakariaren berri izan zuenetik, eta, nolana ere, hutsegitea gertatu ondorengo sei hilabeteetan.

2. Preskribatzea aurreko artikuluko 2. atalean azaldutako oharrekin etengo da, eta berriro hasiko da argudioak emateko dauden hamar egunak pasa ondoren.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Nafarroako Foru Erkidegoko ordainsariak.*

Errege dekretu honetan ezarritako 7.1.a) artikulua arabera, Nafarroako Foru Erkidegoan, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeko 42.1a) artikulua ezartzen duena oinarritzko soldataren erreferentzia bezala hartuko da, aipatutako lege honen lehenengo xedapen gehigarria kontutan hartu gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. *Egoiartzaren sistema bidez prestatzen ari diren langile minusbaliatuak.*

1. Minusbaliatuen Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 37 eta 37bis artikuluetan ezartzen dena moldatuz, minusbaliotasunen bat duten pertsonak onartuak izango dira eta egoiartzaren sistema bidezko prestakuntza prozesuetan tratu berdintasunaren printzipioa bermatzen duten baldintzekin parte hartuko dute.

2. Prestakuntza egiteko egoiliar plaza minusbaliotasun bat daukan pertsona bati ematen bazaio, irakaskuntza unitatea daukan zentroak beharrezko lan, moldaketa eta bestelako zentzuzko doitzeak burutuko ditu, pertsona hau prestakuntza programara erraz sartu ahal izateko, eta honi beharrezko laguntza teknikoak emango zaizkio, honetarako Autonomia Pertsonala eta Laguntza Teknikoen Zentroaren (CEPAT) edo gai honetan espezializatutako beste entitate publiko edo pribatu baten laguntza eta aholkuak eska daitezkeelarik.

3. Arrazoi arkitektoniko gaindiezinengatik, aurrekontu arazo larriengatik edo gehiegizko karga suposatuko luketen antzeko arrazoiengatik aurrekoa egin ahal izan ez balitz, egoiliarren prestakuntza programan egin behar dituen jarduerak egiteko ezinezkotasuna zentruari auzotziko zaio eta ez egoiliarren mugaketa funtzionalei. Horrengatik ezin izango zaio ez gai adierazi derrigorrezko osasun-azterketan, eta irakaskuntza unitatea dagoen Administrazio sanitarioa beharrezko ezaugarriak dituen irakaskuntza unitate batean beste plaza bat eskaintzera derrigortua egongo da, bertan bere prestakuntza eta laguntza jardueretako integrazioa berdintasun egoera batean gauzatzeko aukera izango du bere espezialitateko beste egoiliarrekin parekatuz.

4. Egoiliarren minusbaliotasunak lanaldi luzeak egiten uzten ez badiot, prestakuntza programak eskatzen dituen lanordu kopurua ez da murriztuko, baina hauek bere gaitasun funtzionaletara moldatzeko behar dituen atsedendaldiak izan ditzan antolatuko dira.

5. Errege dekretu honetan arautzen den lan-harreman bereziari dagokionez, pertsona minusbaliatuak kontsideratuko dira ehuneko 33 edo gehiagoko legalki aitortutako minusbaliotasuna duten pertsonak. Nolanahi ere, baliaezintasun handia edo baliaezintasun iraunkor oso zein erabateko bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunek, eta klase pasiboetako erretiro edo zerbitzurako baliaezintasun iraunkor batengatik pentsio bat jasotzen dutenek, ehuneko 33 edo gehiagoko minusbaliotasuna daukatela kontsideratuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Lanaldiaren kondizio bereziak.*

Egoiliarren bere lanaldia antolatu dezake, ezarritako urteko ordu kopurua murriztu gabe, egunean hamabi ordu baino gehiagoko lanaldiak ez egiteko, ondorengo kasuetan:

a) Haurdunaldian zehar.

b) Zaintza legaleko arrazoiengatik. Egoiliarren Langileen Estatutuko 37.5 artikuluan azaltzen den adina

baino gazteagoa den norbaiten edo ordaindutako jarduerarik egiten ez duen minusbaliatu fisiko, psikiko edo sentsorial baten zaintza zuzena egin behar duenean.

c) Bere familiako gehienez bigarren mailako odolki-detasuna edo ezkontza ahaidetasuna duen norbaiten zaintza zuzena egitea beharrezkoa duenean, honek adin, istripu, gaixotasun edo minusbaliotasun arrazoiengatik bere kabuz moldatu ezin duenean, eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duenean.

d) Egoiliarrek adingabeko baten partekatu gabeko zaintza eta jagoletza badauka.

Laugarren xedapen gehigarria. *Genero-indarkeriaren aurkako babes osokorako berezitasunak.*

Langileen Estatutuko 40.3.bis artikuluan aurreikusten den kasuan, genero-indarkeriaren biktima den egoiliarrek, zerbitzuak ematen zituen herriko bere lanpostua uztera behartuta ikusten badu bere burua, titulu eta espezialitate berdineko egoiliartzat prestakuntzarako beste plaza bat egokitzeke lehentasuna izango du beste herri bateko irakaskuntza unitate batean edo baita beste autonomia erkidego batean ere.

Kasu hauetan, Administrazio sanitarioak, egoiliarri momentu horretan libre dauden edo geroago egon daitezkeen plazen berri eman beharko dio.

Irakaskuntza unitate honen aldaketak hasiera batean sei hilabeteko iraupena izango du, eta bitartean, jatorrizko zentruak egoiliarrek betetzen zuen postua gordetzeko beharra izango du.

Epe hau amaitu ondoren, egoiliarrek jatorrizko zentrorat itzultzeko edo berriantzerat aukera izango du. Bigarren aukera hautatuz gero, postua gordetzeko beharra indargabetu egingo da.

Bosgarren xedapen gehigarria *Ebaluazioen berrikusteen prozedura.*

Urteko edo amaierako ebaluazioak negatiboak badira eta ebaluazio batzordeak errekupezioa egokia ez dela kontsideratzen badu eta, ondorioz, kontratuaren iraungitzea egin besterik ez badago, egoera honetan daudenean berrikuste bat eskatu dezakete. Ebaluazioa positiboa bada baina kalifikazioa onuragarria ez dela kontsideratzen dutenean ere eska dezakete berrikuspenera. Berrikuspenera hauek ondorengo prozedurak jarraituz gauzatu dira.

1. Urteko ebaluazio negatiboaren berrikustea: Ebaluazioa eman ondorengo hamar egunen barruan, egoiliarrek honen berrikustea eska diezaiolke idatziz irakaskuntza batzordeari eta hitzordu bat eskatu, eskaera jaso ondorengo hamabost egunetan bildu daitezten.

Egoiliarra bere tutorearekin joan daiteke berrikuspenera. Batzordekideek beharrezkoak kontsideratzen dituzten galderak egingo dituzte eta behin betikoa izango den kalifikazioa, erabateko gehiengoz erabakiko dute.

Batzordeak ebaluazio positibo bat erabakitzen badu, hau berrikuste datatik kontatuta bost egun barruan emango da.

Ebaluazio negatiboa mantentzea erabakitzen bada, epe berean, batzordeak egoiliarri ebazpen arrazoitu bidez ohartaraziko dio eta baita zentruko arduradunari ere, kontratuaren iraungipena gauza dezan.

2. Amaierako ebaluazio negatiboaren berrikustea: Urteko ebaluazio negatiboa den kasuan, ebaluazioa eman ondorengo hamar egunen barruan, egoiliarrek honen berrikustea eska diezaiolke dagokion espezialitatearen

batzorde nazionalari. Eskaera jasotakoan, batzordeak eskaera jaso ondorengo hogeita hamar egunen barruan proba bat egiteko data bat finkatuko du, eta honen ondoren erabateko gehiengoz erabakiko du kalifikazioa.

Ebaluazio negatiboa mantentzea erabakiko balitz, egoiliarrek batzorde berearen aparte proba bat egiteko eskubidea izango du, lehengo probatik gutxienez sei hilabete eta gehienez urte bat pasa ondoren. Batzordeak doakionari hilabete bateko aurrerapenarekin ohartarazi beharko dio. Kalifikazioa berriro ere erabateko gehiengoz erabakiko da eta behin betikoa izango da.

3. Amaierako ebaluazio positiboaren kalifikazioaren berrikustea. Ebaluazioa positiboa bada baina egoiliarrek kalifikazioa onuragarria ez dela kontsideratzen badu, dagokion espezialitatearen batzorde nazionalaren aurrean proba bat egiteko eskubidea izango du, kalifikazioa hobetzeko helburuarekin. Prozedura ebaluazio negatiboaren berrikustearenaren lehenengo probaren berdina izango da. Batzordearen erabakia behin betikoa izango da, aparte proba bat egiteko aukerarik izan gabe.

Seigarren xedapen gehigarria *Espezialitate mediko zehatzentzako berariazko arauak.*

Irakaskuntza batzordeei egindako erreferentziak, dagozkien batzorde aholkulariei dagozkie, espezialitatearen prestakuntza ospital barruan edo kanpoan gauzatzen bada.

Zazpigarren xedapen gehigarria *Itun eta hitzarmenen aplikazioa*

Errege dekretu honetako langileen ordezkartzar esparruei dagokien negoziazio kolektiboan hala erabakitzen bada, estatutupean dauden langileei dagozkien itun eta hitzarmenak aplikatuko zaizkie, egoiliar langileen berariazko araudiarekin bateragarriak badira, administrazio publikoko langileen legediak diotenaren aurka joan gabe.

Zortzigarren xedapen gehigarria *Indar armatuen kide diren, prestakuntza egiten ari diren espezialistak*

Errege dekretu hau ez zaie indar armatuen kide diren, prestakuntza egiten ari diren espezialistek aplikatuko, hauek osasun- sare militarretan nahiz beste edozein osasun-sareetan prestatu. Haiei berariazko araudia aplikatzen jarraituko zaie.

Lehenengo xedapen iragankorra *Gehienezko lanaldiaren mailakako aplikazioa.*

Abenduaren 16eko 55/2003. Legean azaltzen den lehenengo xedapenaren arabera, osasun zerbitzuen estatutupeko langileentzako ezarritako denbora mugaketa, ohiko lanaldia eta lanaldi osagarria batuz, langile egoiliarrei mailaka aplikatuko zaie, irakaskuntzarako akreditatuak dauden bai zentru publiko bai pribatuetan, ondorengo denboraldietan:

a) Asteroko 58 ordu gehienez, urteko batz-bestekoa kalkulaturik, 2007ko uztailaren 31a arte.

b) Asteroko 56 ordu gehienez, sei hilabeteko batz-bestekoa kalkulaturik, 2007ko abuztuaren 1etik, 2008ko uztailaren 31 arte.

c) 2008ko abuztutik aurrera, gehienezko lanaldia asteroko 48 orduko izango da, sei hilabeteko batz-bestekoa kalkulaturik.

Bigarren xedapen iragankorra
sistemaren mailakako aplikazioa.

Ordainsari

1. 7.1 eta 2 artikuluan ezartzen dena, autonomia erkidegoetako osasun zerbitzuek mailaka aplikatuko dute, egoiliarrek dagoeneko jasotzen duten zenbatekoa eta aipatutako artikuluan ezartzen denaren arteko aldea kontutan harturik.

2. Mailakako aplikazio hau, ondoren azaltzen den moduan aplikatuko da:

a) Aipatutako aldearen ehuneko 25a, errege dekretu hau indarrean jarri ondoren, 2006ko urtarrilaren 1era atzeraeraginezko izaerarekin.

b) 2007ko urtarrilaren 1etik, ehuneko 25a.

c) Gainerako ehuneko 50a 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Aurreko atalean aipatutako mailakako aplikazioak ez du inolaz ere esan nahi egoiliarrek dagoeneko jasotzen duen ordainsaria baino gutxiago jasotzea.

Helburu horretarako, autonomia erkidegoek aurreko atalean ezarritako ehunekoak moldatu ditzakete.

3. Prestakuntza emateko akreditatuak dauden irakaskuntza unitateen titular diren entitate pribatuetan kontratatutako egoiliarrek 7.4 artikuluan ezarritako ordainsaria baino gutxiago jasoko balute, zenbateko berriak mailaka aplikatu daitezke aurreko atalean azaltzen den bezala, dagokion hitzarmen kolektiboan ezartzen denaren aurka ez badao.

Hirugarren xedapen iragankorra
Erizaintzaren espezialitatearentzako berriazko arauak.

Erizaintzaren espezialitateari buruzkoa den apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuko 1.2.c) artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian ezartzen diren aurreikuspenak garatzen diren bitartean, ondorengo arauak aplikatuko dira:

1. Irakaskuntza batzordeei egindako erreferentziak, erizaintzako espezialitateari dagokionez, ebaluazio batzordeari dagozkie, aipatutako irakaskuntza batzordeak sortzen ez diren bitartean.

2. Ebaluazio batzarra irakaskuntza unitatearen koordinatzaileaz, egoiliarraren tutoreaz eta dagokion unitateen zerbitzuak ematen dituen erizain espezialista batez osaturik egongo da.

3. Ebaluazioa ondorengo kalifikazioak erabiliz gauzatuko da: nahikoa, oso ona edo bikaina, ebaluazioa positiboa denean eta ez gai negatiboa denean.

4. 3.3 artikuluan aurreikusten den errehabilitazio luzearen hilabete bakarrekoa izango da urte bateko espezialitateentzat eta bi hilabetekoa prestakuntza programa luzeagoentzat.

5. Bosgarren xedapen gehigarriko lehenengo atalean aipatzen diren errehabilitatu ezin daitezkeen urteko ebaluazio negatiboen berrikustek espezialitatearen batzorde nazionalera eramango dira. Honetarako, aipatutako ataleko lehenengo paragrafoan ematen den hamabost eguneko epea hilabete batera luzatuko da.

Laugarren xedapen iragankorra
Baldintza onuragarrienen printzipioa.

Errege dekretu hau indarren jarri aurretik, egoiliartzat sistema bidez prestakuntza espezializatu batera sartutako egoiliarren eskubideak mantenduko dira, hauek onuragarriagoak badira.

Xedapen indargabetzaile bakarra
Arauen indargabetzea.

1. Errege dekretu honen aurka doazen maila bereko edo azpiko edozein xedapen indargabeturik geratuko dira, bereziki, erizain espezialistaren titulua lortzeari buruzkoa den uztailaren 3ko 992/1987 Errege Dekretuaren bidez garatzen den 1998ko ekainaren 24ko Aginduko 9.5 eta 6 artikulua.

3. Errege dekretu hau indarrean jartzen denean, osasun praktika eta irakaskuntzei buruzkoa den ekainaren 16ko 24/1982 Legea indargabetuko da, azaroaren 21eko 44/2003 Legeko xedapen indargabetzaile bakarrean ezartzen denari jarraituz.

Lehenengo azken xedapena
gaikuntza.

Eskuduntzen

Errege dekretu hau Konstituzioaren 149.1.7. artikuluan ezartzen denaren babespean ematen da; honek Estatuari egokitzen dio lan-legegintza, nahiz eta autonomia erkidegoetako organoek bete beharko duten.

Bigarren azken xedapena
Indarrean jartzea.

Errege dekretu hau "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren emana, 2006ko urriaren 6ean.

JUAN CARLOS R.

Gobernuko Lehen Presidenteordea
eta Presidentetzako Ministroa
MARIA TERESA FERNÁNDEZ DE LA VEGA SANZ